



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2016/2017 ikasturtea

**ETXEKO ETA ZAINTZA LANETAN ARITZEN DIREN
LATINOAMERIKAKO EMAKUME ETORKINEN EGOERA:
BILBOKO KASUA**

Egilea: Aynara Castillo Rojas

Zuzendaria: Naiara Berasategi Sancho

Leioan, 2017ko ekainaren 21ean



AURKIBIDEA

SARRERA.....	4
1. IMMIGRAZIOA GAUR EGUN ETA HORREN FEMINIZAZIOA	4
2. EAEKO LATINOAMERIKAKO EMAKUMEEN KOLEKTIBOA	6
2.1. LATINOAMERIKAKO EMAKUMEEN EZAUGARRI PSIKOSOZIALAK	8
2.2. EMAKUME ETORKINEI BEGIRAKO KOLEKTIBOAK ETA ERAKUNDEAK.....	10
3. METODOLOGIA.....	12
3.1. HELBURUAK.....	12
3.2. LAGINA	13
3.3. TRESNAK	13
3.3.1. BIZITZA HISTORIAK.....	13
3.3.2. RELIEF MAPS	14
3.4. DISEINUA ETA PROZEDURA.....	15
4. EMAITZEN ANALISIA	16
4.1. EMAKUMEEN BIZITZA HISTORIAK	16
4.2. EMAKUMEEN ESPERIENTZIAK RELIEF MAPS-EN ARABERA.....	22
5. ONDORIOAK ETA AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK.....	23
6. BIBLIOGRAFIA	26
ERANSKINAK.....	31
Eranskina 1. – LATINOAMERIKAKO EMAKUMEEN LANERATZEA	31
Eranskina 2. – EMAKUME ETORKINEI BEGIRAKO HAINBAT KOLEKTIBO ETA ERAKUNDE	34
Eranskina 3. – BIZITZA HISTORIAK: GIDOIA	36
Eranskina 4. – BIZITZA HISTORIAK: TRANSKRIPZIOAK	38
Eranskina 5. – PARTE-HARTZAILEEN RELIEF MAPS	108

ETXEKO ETA ZAINITZA LANETAN ARITZEN DIREN LATINOAMERIKAKO EMAKUME ETORKINEN INKLUSIOA

Aynara Castillo Rojas

UPV/EHU

Lan honek Latinoamerikatik etorritako emakumeek EAEn duten egoera ikertzea du helburu, kontuan izanik euren esperientzietan etxeko lanen esparruak duen pisua. Zehazki, Gizarte Hezkuntzaren eremutik langile horien egoera aztertu eta inklusioa nola ahalbidetu daitekeen jakitea bilatzen du. Xede hori lortzeko metodologia kualitatiboan oinarrituz bi ikerketa tresna erabili dira: Bizitza Historiak eta *Relief Maps*. Emaitzek diote gehienek euren egoera ekonomikoa hobetzeko edo genero indarkeria egoeretatik ihes egiteko migratu dutela. Inklusio prozesuan laguntzen dien faktore nagusietako bat lana dela errepikatu duten arren, sektorearen lan-baldintzak salatu dituzte. Ildo beretik lantokia, leku gatazkatsua izan daitekeela aipatu dute. Migrazio prozesuaren eta inguru berrira egokitzearen eraginez ahalduntzea esperimendu dutela azpimarratu eta prozesu hori nagusiki oztopatzen duena gizarte bazterkeria dela nabarmendu dute ere.

Emakumea, migrazioaren feminizazioa, etxeko lana, inklusioa, ahalduntzea

Este trabajo tiene como objetivo investigar la situación de las mujeres venidas de Latinoamérica en la CAV, teniendo en cuenta la importancia que tiene el sector del trabajo doméstico en sus experiencias. La investigación pretende analizar la situación de esas trabajadoras y saber cómo posibilitar su inclusión desde el área de la Educación Social. Para conseguir ese objetivo se han utilizado dos herramientas basadas en una metodología cualitativa: las Historias de Vida y los Relief Maps. Los resultados manifiestan que han migrado principalmente para mejorar su situación económica o para huir de situaciones de violencia de género. Pese a que han repetido que el factor primordial en su proceso de inclusión es, entre otros, el trabajo, han denunciado las condiciones laborales del sector. En ese mismo sentido han mencionado que el lugar de trabajo puede ser un lugar problemático a consecuencia de recibir agresiones racistas o acoso sexual. Han enfatizado que debido al proceso migratorio y la adaptación al nuevo medio han experimentado empoderamiento y también han destacado que lo que principalmente obstaculiza ese proceso es la exclusión social.

Mujer, feminización de la migración, trabajo doméstico, inclusión, empoderamiento

This dissertation has the objective of research the situation of the women from Latin America in the Basque Country, heeding the magnitude that the domestic work sector has in their experiences. The research wants to analyse the situation of those workers and know how to enable their inclusion from the area of the Social Education. In order to achieve the objective two tools based in the qualitative methodology have been used: Life History and Relief Maps. The results show that they have migrated mainly in order to improve their economic situation or to hide from gender violence situations. They repeated that the main factor in their inclusion process is the labour, among others, in despite of that they have reported the working conditions of the sector. In the same way they said that the workplace can be a problematic place as a result of receiving racist assaults or sexual harassment. They have emphasized that due to the migration process the adaptation to the new environment they have experimented empowerment and they also have pointed that what most hinders that process is the social exclusion.

Woman, feminization of migration, domestic work, inclusion, empowerment

SARRERA

Lan honen helburua etxeko lanetan jarduten duten Latinoamerikako emakumeen kolektibora hurbiltzea eta emakume horiek bizi duten egoera ezagutzea da. Zehazki, Euskal Herriko esparruan Bilbon kokatutako emakumeen egoerara gerturatu nahi da; aspektu psikosozialei eta sozio-ekonomikoei erreparatuz. Era berean, maila sozialean pertsona horien inklusioa hobetzera begira sortu diren hainbat erakunde eta kolektibo aztertu nahi dira. Bestalde, atal teorikoaz gain, ikerketa enpirikoa aurrera eramateko hainbat elkarrizketa burutu dira, elkarrizketa horietatik ateratako emaitzak lanean ere agertzen direlarik. Azkenik, atal teorikoa eta enpirikoa kontuan izanik, hainbat ondorio eta aurrera begirako proposamen jasotzen dira.

1. IMMIGRAZIOA GAUR EGUN ETA HORREN FEMINIZAZIOA

Gaur egun inoiz baino lekualdatze gehiago daude, izan ere, 2015ean nazioarteko migrazioaren kopurua 244 milioira heldu zen (Nazio Batuen Erakundea, 2016). Duela hamar urteko zifrekin alderatuz ikus daiteke 2005ean mundu mailan pertsona migratzaileen kopurua 191 milioietan kokatzen zela, beraz, azken urteotan igoera nabarmena eman da (Nazio Batuen Erakundea, 2006).

Asko dira migrazioa eragiten duten faktoreak, gehienetan arrazoi ekonomikoak izaten dira tarteko, baita arrazoi familiarak edo politikoak ere (Álvarez, 2008; Castles & Miller, 2004; Colectivo Ioé, 1998; Browne & Braun, 2008). Halere, arrazoi ez-ekonomikoek eragindako migrazioek, bai jatorrizko herrialdearen bai helmugako herrialdearen ekonomian eta lan merkatuan inpaktua dute. Hortaz, jatorrizko eta helmugako herrialdeetan ematen den eragina ez da bakarrik ekonomikoa, demografikoa eta soziala ere bada, erakunde politikoetan eragiten du eta bertako kulturak eraldatzen dira (Castles & Miller, 2004).

Aro garaikidean migrazio fluxuek joera orokor batzuk jarraitzen dituztela diote autoreek, hasteko globalizazioa aipatzen dute, hau da, fenomeno globala bilakatu izana. Beste aldetik, migrazioen bizkortzea azpimarratzen da, horien kopuruaren hazkundera lotuz. Beste joera bat migrazio moten aniztasuna eta aldakortasuna da. Horietaz gain, fenomenoaren politizazioa nabarmentzen da, izan ere, migrazioen ondorioz Estatuen politika eta nazioarteko harremanetan aldaketak eragin dira. Azkenik, feminizazioa dago, emakume migratzaileen kopuruaren hazkundera, hain zuzen ere (Castles & Miller, 2004).

Migrazioaren feminizazioa kontzeptua hobeto ulertzeko autore desberdinen definizioak birpasa da. Rosas-en (2014) hitzetan emakumeen presentzia migrazio-

stocketan handitzeari migrazioen feminizazio kuantitatiboa izendatu zaio. Acosta-ren (2010) ustez, aldiz, munduko migrazio-mugimenduetan genero aldaketa nabarmena eman da, XX. mendeko gizonezkoen gailentasunaren ostean XXI. mendearen hasieran balantze bat eman baita. Emakumeen kopuruaren hazkundearekin batera, emakume immigrantearen irudiaren kontzeptuaren zabaltzea ere eman da, gizartean eta ekonomian bere rol aktiboa aldarrikatuz, ikusezintasunetatik ateratzea ahalbidetu diena. Landry-k (2012) ere migrazioaren feminizazioa migrazio fluxuetan emakumeen kopuruaren hazkundearekin lotzen du, horretaz gain, emakume etorkinak subjektu independente gisa hartzen ditu, haien profil parte-hartzailea eta lan aukeren bilaketan arreta jarritz. Azkenik, Hernández-Ardietarentzat (2013) migrazioaren feminizazioak beste ñabardura bat dauka, emakumeak migrazio fluxuetan izan duen paper aldaketarekin lotuta dagoena. Hau da, iraganean prozesu honetan ohikoa zen emakumeak eta alabak menpekoak izatea, gaur egun, aldiz, migrazio fluxuetan subjektu aktiboak eta familiaren euskarri nagusiak dira (Federici, 2013; Gil Araujo & Pedone, 2014; Hernández-Ardieta; Suárez, 2005; Vitar, 2012).

Migrazioaren feminizazioaren adierazle gisa hurrengo datua agerikoa da: Hegoalde globaletik Iparraldera¹ doazen emakumezkoen emigrazioak pasa den mendeko laurogeita hamarrek hamarkadatik aurrera jauzi bat eman du, etxeko lanaren eta zerbitzuen esparruak horietan jarduteko langileez etengabe hornituz (Federici, 2013), sektore hauetan soldata baxuak ezaugarri komuna delarik. Beraz, emakumezkoen migrazioen areagotzea globalizazioaren ondorioz agertu zen, horrek migrazioen jatorrizko herrialdeko biztanleriaren parte handi bat pobretu eta aukera ekonomikoak bilatzearen beharra izan baitzuen (Baca, 2016).

Esan bezala eta aipatutako arrazoiak direla medio, geroz eta emakume gehiagok beste herrialde batean lan egiteko euren kabuz migrazio proiektu propioa abiatzen dute. Herrialde askotan emakume etorkinen kopurua gizonen kopuruarekin parekatzen da, kasu batzuetan emakumeena askoz handiagoa izanik. Halere, migrazio-korronteen feminizazioa jatorrizko herrialdeko kulturarekin lotuta dago, adibidez, Espainian iberoamerikar herrialdeetatik (Dominikar Errepublika, Brasil, Kolonbia, Kuba, Peru, etab.), Ekialdeko Europatik (Polonia, Errusia) edo Asiatik (Filipinas) datozen migratzaileen artean feminizazioa handiagoa da Magreb-eko eskualdetik datozenen artean baino (Blanco, 2004).

¹ Azkenaldian Hegoalde Globala iraganean “hirugarren mundua” edo “periferia” bezala izendatzen zena ordezkatzeko erabiltzen da. Hegoalde Globala, ikuspuntu politiko eta kulturaletik ulertuta, mundu modernoaren inguruan kokatzen diren herrialdeen multzo heterogeneoa da; kontzeptu horren erabilerak Iparralde Globala kontzeptua antonimo bezala sortzen duelarik (Carou & Bringel, 2010).

2. EAEKO LATINOAMERIKAKO EMAKUMEEN KOLEKTIBOA

EAEn kasuan, immigrante gehienak Latinoamerikakoak dira, etorkin guztien %46,9a, hain zuzen ere, eta horietatik herrialdeen arabera lau talde bereizi daitezke: Kolonbia, Ekuador, Peru, Bolivia eta Paraguai (%24,9); Brasil, Venezuela eta Dominikar Errepublikak (%8,1); Argentina, Txile eta Uruguai (%4,3) eta gainerako herrialdeetatik etorritakoak (%9,3) (Ikuspegi, 2017a).

Adinari dagokionez, EAEn heldutako etorkin gehienak gazteak dira; % 47a 25 urtetik 44 urtera bitarteko adinekoa da eta %34ak 25 urte baino gutxiago ditu. Hau da, bizitzako garai emankorren dauden langile-klaseko pertsonak dira (Emakunde, 2012).

Erroldatutako immigranteen inguruan argitaratu diren azken datuen arabera, bai Estatu mailan bai EAEn emakume etorkinen kopurua gizonena baino handiagoa da: Espainiako Estatuan 3.120.358 emakume (totalaren %51,1a) eta EAE-n 57.045 emakume (totalaren %62,3a) (Ikuspegi, 2016). EAEko immigrante gehienak, jatorriaren arabera sailkapenak dioenez, Latinoamerikatik iritsitako emakumezkoak dira (Martín, 2014), zehazki etorkinen kopuru totalaren %28,54a (Ikuspegi, 2017b).

Gaur egun EAEko testuinguruan Latinoamerikako nazionalitate nagusien feminizazio-indizea behatzeko hiru multzoetan sailkatu daitezke: %45 eta %55 artean emakumezkoak diren jatorrietakoak (Txile, Uruguai, Argentina eta Ekuador), %55 eta %70ren artean emakumezkoak diren jatorrietakoak (Mexiko, El Salvador, Guatemala, Bolivia, Kuba, Dominikar Errepublikak, Venezuela, Peru, Kolonbia eta Brasil) eta %70 eta %80 inguruan emakumezkoak diren jatorrietakoak (Nikaragua, Honduras eta Paraguai) (Martín, 2014). EAEn legez kanpoko egoera administratiboan dauden emakumeak 7.600 dira, gehienak ere Latinoamerikakoak eta, neurri txikiago batean, Senegalekoak (Emakunde, 2012). EAEn emakume etorkinen gailentasuna azaltzen duten arrazoen artean honako hauek agertzen dira:

Emakumezko etorkinek EAEko migrazio-prozesuetan duten gailentasun hori herrialdearen gizarte-, ekonomia- eta demografia-egiturari estu lotutako faktore batzuek baldintzatzen dute; faktoreok, besteak beste, hauek dira: ongizate-maila handia, beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuta; bertako emakumeek lan-merkatuan sartzeko aukerak handia izatea, eta, horren ondorioz, etxeko lanak ez ezik, lana, orokorrean, banatuta egotea; eta emakumeek betetzen dituzten roleri lotutako funtzioak. Gainera, egitura demografikoa oso zahartuta dago, eta jaiotze-tasa oso txikia da. (Martín, 2014: 150)

Aurreko pasartean aipatzen diren gizarte-egiturari lotutako faktoreez gain, aipagarria da Emakundek 2012an argitaratutako “Atzerriko emakume etorkinak EAEn” ikerketaren

arabera, Latinoamerikako herrialdeetatik datozen emakumeen kolektiboa EAEko biztanleria autoktonoari gehien gustatzen zaiona dela, gero eta feminizazio-kutsu handiagoko parametroetan, hain zuzen ere:

Immigrazio-fluxua uste baino arautuagoa dago gizartean, eta herrialde hartzailearen premiak eta herrialde igorlearen eskaintza zehaztasun handiz egokitzen dira. Horrek azaltzen du zergatik dagoen euskal gizartea –inplizituki bada ere– Latinoamerikako etorkinen alde eta zergatik diren gero eta gehiago emakumeak herrialde horietatik datozen etorkinak. (Emakunde, 2012: 46)

Hau da, emakume latinoamerikar immigranteen garrantzia eta horiek lan mundura sarbiderik errazena dutela ulertzeko haien kultura- eta hizkuntza-ezaugarriengatik euskal gizartearen beharretara ongien egokitzen direnak direla kontuan izan behar da (Martín, 2014).

Testuinguru honetan, Latinoamerikako emakumeen kolektiboaren barnean bi profil nagusitzen dira, lehenengo profila Andeetako herrialdeetatik etorritakoak osatzen dute. Hauen berezitasunak honako hauek dira: EAEn epe luzerako finkatuta daude, bikotekideak eta seme-alabak izan dezakete edo ez, gizarte-sare propio bat izan dezakete edo besteren sare batean egon, haien etxe propioan edo besteren etxean zaintza lanak burutzen dituzte eta tokiko hizkuntza bat menperatzen dute (gaztelania). Nabarmentzen den beste profila, aldiz, Nikaragua eta Paraguai bezalako herrialdeetatik etorritako emakumeak osatzen dute, hauek Andeetako profila ez bezala, EAEn denbora gutxi daramate. Hauen kasuan badaude legez eta legez kanpoko egoera administratiboan daudenak, gehienak bikotekiderik gabe baina seme-alabak izan dezaketenak. Bi profilen ezaugarri komuna, Latinoamerikakoak izateaz gain, etxe propioan edo besteren etxe batean zaintza lanak burutzea da. Alabaina, profil honen barnean sailkatutako emakume gehienek ez dute gizarte-sare propiorik, beste pertsonekin edo gizarte-talderekin harremanik ez dutelarik (Emakunde, 2012).

Laburbilduz, eta aurretik aipatu den bezala, Latinoamerikako etorkin gehienak emakumeak dira (aukeraketa honetan generoa estatus sozioekonomikoa baino gehiago nabarmenduz), amatasun transnazionala eta emakumeen migrazio-sareak sortzen dituzte eta gizarte hartzailean, EAEn kasuan bezala, ia eksklusiboki emakumei zuzendutako lan-hobietan jarduten dute, batez ere etxeko lanaren sektorean² (Emakunde, 2012).

² Latinoamerikako emakumeen laneratzeaz gehiago jakiteko ikusi [“Eranskina 1”](#).

2.1. LATINOAMERIKAKO EMAKUMEEN EZAUGARRI PSIKOSOSIALAK

Latinoamerikako emakumeen hainbat ezaugarriei erreparatuz, garrantzitsua da ikuspegi psikosozialetik ahalduntzearen pertzepzioari, gizarte sareari eta emozioei arreta jartzea.

Emakume askok etxetik ihes egitean autonomia eta autodeterminazio handiagoa eta botere harreman mesedegarriagoak bilatzen dituztela aintzat hartuta, migrazioa matxinada bezala ere interpretatu daiteke. Aurretik aipatu bezala, bortizkeria, zapalkuntza eta baliabide faltak (pobreziaren feminizazioa) emakumeen irteera bultzatzen dute, emigrazioa burujabetza edota familiarterako indarkeriatik ihesa izanik (Alcalde, 2014; Federici, 2013; Lipszyc, 2004; Vitar, 2012).

Emakume askok, lan egiteko eta dirua irabazteko migratzearen inguruan hartutako erabakiarekin pozik daude, izan ere, aipatutako helburuez gain, askatasuna eta independentzia gehiago lortu dute horri esker (Sánchez & Serra, 2013). Martín-ek (2014) emakume latinoamerikarren egoera zehaztasun honekin azaltzen du:

Laneratzeko handiago horren ondorioz sarrera ekonomikoak handiagoak dira kolektibo horren autonomia ekonomiko eta sozial handiagoa, bai eta latinoamerikar emakumearen ahalduntze handiagoa ere. (Martín, 2014: 151)

Beraz, emakume hauek soldatapeko lanak autonomia eta askatasunaren inguruko helburuak lortzea ahalbidetzen diela uste dute, haien ikuspuntutik jatorrizko herrialdean lan merkatua edota leku horretan sexu-genero sistemak ezartzen duen presioa direla medio lortu ezingo luketenak (Trujillo, Rivera & Almeda, 2015).

Amatasun transnazionala³ mantentzean, aitak, aitite eta amamak edota bestelako senideek umeen arduraz zuzena hartzen dute, horren ondorioz familia arteko loturak eta rola eraldatzen dira; genero harremanak, gurasoen arteko harremanak eta umeekiko harremanak, hain zuzen ere (Nyberg, 2008). Migrazioaren ondorioz gizona familiaren euskarri ekonomikoa dela ezartzen duen rol tradizionala emakumeak betetzen du: erreproduktzio materiala, erabakiak hartzeko gaitasuna (Vitar, 2012) eta estatus garrantzitsuagoa eskuratzen dituzte. Autonomia mota honek sektorearen burujabetza faktore nabarmena eta kolektibo gisa kontzientzia hartzea suposatzen du (Larenas, García & Roco, 2014). Halere, paradoxa-egoera sortzen da: emakume batzuek aldi baterako burujabetza esperimentatzen duten bitartean etxeko lanera kateatu behar dira, hitz gutxitan, bai ahalduntze bai gizarte bazterketa prozesu anbiguoetan parte-hartzen dute (Vitar, 2012).

³ Amatasun mota bat da zeinean emakume etorkinek harrerako gizartean lan egiten duten eta bizi diren bitartean, euren seme-alabek jatorriko herrialdean jarraitzen dute (Medina, 2011).

Bestalde, emakume hauen gizarte-sare eta harremanek bere gizarteratze prozesuan kontuan izatea ere ezinbestekoa da, horiek migrazio prozesuaren eta jatorriaren ondorioz desberdintasunak aurkezten dituztelarik.

Emakume Latinoamerikar immigranteen lan testuingurua kontuan izanda, bertako eta emakume etorkinen arteko menpekotasun bikoitza ematen dela ondorioztatzen da. Izan ere, emakumezkoen eta laguntza sare familiarren eraikuntzak eta diru sarrera propioak izateak emakume etorkinen bizitza pertsonal eta familiarretan aldaketa sakonak ematea ahalbidetu dezakete. Premisa horretatik abiatuz, pentsatu daiteke lan- eta migrazio-esperientziak herrialde bietan izandako bizitza eta lanaren inguruan hausnartzea eragin dezakeela. Horrekin batera, amatasuna, bikote, familia eta jatorrizko komunitatearekiko harremanak bestelako modu batean esperimentatzea sustatu dezake (Becerril, 2013). Amatasunari dagokionez, oso ohikoa da kolektibo honek amatasun transnazionala deiturikoa mantentzea, hau da, haiek Iparraldeko herrialdean lanean egonda seme-alaben bidaia kudeatzen duten bitartean mantendutako aldi baterako estrategia (Vitar, 2012).

Migrazioak elkartasun harremanak ere sortu ditzake, horren erakusgarri dira babesle rola betetzen dituzten pertsonak. Hauek, Iparraldeko herrialdean heldu berriei laguntza eskaintzen dieten jadanik gizarteratuta dauden emakume etorkinak izaten ohi dira. Babeslearen irudiaz gain, etxeko langileen enplegu-emailearekin edo berehalako inguruko pertsona batekin harreman parekidea izateak euren gizarteratze prozesua erraztu dezake (Vitar, 2012). Halere, badaude emakume hauen artean zailtasun bereziak dituztenak gizarte-harreman propioak eratzeko, besteak beste barneko etxeko langile gisa lan egiten duten heldu berriak (Larenas et al, 2014).

Latinoamerikako immigrante askok jatorrizko herrialdean dauden senideekin harreman ekonomikoak mantentzen dituzte, horrek migrazio prozesuaren arrazoi ekonomikoa eta migrazio eta familia harremanen arteko loturen garrantzia azaleratzen ditu (Grande & Del Rey, 2012). Etorkinen kolektiboaren barnean emakumeak dira jatorrizko herrialdeko senideekin konpromiso handiena daukatenak, gehien bat amatasun transnazionala mantentzen dutenak. Beraz, Iparraldeko herrialdetik Hegoaldeko herrialdera egiten den diru bilketak dimentsio familiarra duela baieztatzen da, hauen bidez emakumeek, loturak, atxikimenduaren kudeaketa eta umeen zainketa burutuz. Hortaz, amatasun transnazionalaz gain, zaintzaren sare globalak⁴ sortzen dira (Grande & Del Rey, 2012; Parella, 2007; Pérez, 2010). Halere, gizarte gertaera guztietan bezala,

⁴ Familien lan erreproduktiboan mundializazioari edo transnazionalizazioari deritza (Torrens, 2012). Kontzeptu honek honako logika hau garatzen du: mundu mailan dagoen lana eta zaintzaren arteko lotura, adiera ordaindua eta ez ordaindua kontuan harturik (Barañano & Marchetti, 2016).

prozesuak ez dira homogeenak eta diru bidalketen gaian berdina gertatzen da. Zaintza eta etxeko lanak barne langile gisa burutzen dituztenak diru bidalketa gehien egiten dituztenak dira, bizileku ezegonkortasun eta prekarietateari zein soldata txikiei loturik egon arren. Gertaera horretatik emakumea bere familiaren mesederako sakrifikatzen dela ondorioztatu daiteke (Grande & Del Rey, 2012).

Azkenik, pertsona hauen inguruko aspektu psikosozialei erreparatzean, pertsona hauen arlo emozionala ezin da albo batera utzi. Amak diren emakumezko etxeko langileak lan mundura sartzean daramaten karga emozionala zaintza lanekin eta erreproduktzio lanekin (batez ere haien familiaren barnean) lotutako gizarte adierazpenen arabera izango da (Larenas et al., 2014). Azken finean, lan hau zaintza familiarraren ordezkotzat hartzen da (Vega, 2009).

Lanaldi luzeek, gehien bat barne zaintzaileen kasuan, zaintzen dituzten menpeko pertsonekin harreman estuak eratzea errazten dute. Izan ere, lan hau langileei suposatzen dien higadura fisiko zein psikologikoagatik nabarmentzen da (Ruiz & Moreno, 2013).

Emakume hauek atzean utzitakoagatik (batez ere pertsonak) migrazioa pairatzen dute, horren ondorioz zaintzaileek ezin dute atsekabea eta sufrimendua ekidin. Horri etengabe azalratzen den ardurak eta errudun sentimendua gehitzen zaio (Ruiz & Moreno, 2013). Sentitzen duten erruduntasuna zuzenean seme-alaben hazkuntza eta ugalketaz arduratzeko ezintasunarekin lotuta dago (Emakunde, 2012). Horretaz gain, burutzen duten lana dela eta, erabiltzaileak senideak izango balira bezala zaintzen dituzte euren senide propioei buruz pentsatzen duten bitartean, jatorrizko herrialdeetan utzitako ardurak gogora ekarriz eta erruduntasun sentimendua elikatuz. Aipatutako afektibitate gabezien ordainez, hain zuzen ere, erabiltzaileen zainketan askoz gehiago ahalegintzen dira (Vega, 2009).

2.2. EMAKUME ETORKINEI BEGIRAKO KOLEKTIBOAK ETA ERAKUNDEAK

Emakume etorkinei begira hainbat dira sortu diren elkarteak eta kolektiboak. Horien kopurua azken urteetan nabariki igo da, besteak beste, immigrazioaren feminizazioa dela medio, behar eta eskaera berriak ere sortu direlako. Espainiako Estatu mailan eta Euskal Herrian ere, hainbat dira egun martxan dauden elkarteak emakume etorkinei begira lan egiten dutenak (Taula 1⁵).

⁵ Taularen bertsio luzea ikusteko kontsultatu "[Eranskina 2](#)".

IZENA	DESKRIBAPENA	KOKAPENA
Babelgo Dorrea	Etorkinen arteko sareak bultzatzen eta ikastaroak eskaintzen dituen erakundea (Fundación Ellacuría, n.d.).	Bilbo
Dones i Treballs	Hausnarketa, analisi, esperientzia truke eta soldatapeko lanaren inguruko proposamenak burutzeko espazio feminista (Ca La Dona, n.d.).	Bartzelona
Etxeko Langileen Elkartea	Abuztuaren 1eko 1424/1985 Errege Dekretuaren aldaketa eta lan baldintza duinak aldarrikatzen dituen elkartea (Etxeko Langileen Elkartea, n.d.).	Bizkaia
Mujeres con Voz	Emakume etorkin eta autoktonoen arteko topaketak sustatzeko xedea duen elkartea (Mujeres con voz, n.d.).	Getxo
Munduko Emakumeak	Genero eta kultura-aniztasunaren ardatzen inguruan lan egiten duen kolektibo feminista (Munduko Emakumeak, n.d.).	Bilbo
Precarias a La Deriva	Emakumeen lan baldintza prekarioak ikertzen dituen kolektiboa (Precarias a la Deriva, n.d.).	Madril
Territorio Doméstico	Gehienbat emakume etorkinez osatutako etxeko langile gisa dituzten eskubide gisa dituzten eskubideak aldarrikatzeko borroka, topaketa, harreman eta zaintza espazioa (Territorio Doméstico, 2014).	Madril

Taula 1. Emakume etorkinei begirako elkarteak eta kolektiboak.

Emakume etorkinei begira lan egiten duten elkarteetan aniztasuna nabaria da, dituzten helburuak anitzak direlako. Batzuek alor ekonomikoan dauden hutsune eta egoera prekarioak salatzea eta konponbideak bilatzea dute helburu; beste batzuek, aldiz, alor sozialean eragin nahi dute, harreman sareak handituz eta inklusioa bultzatuz; beste batzuek hezkuntza arloa lantzen dute, formakuntzaren esparruan dauden beharrei erantzuna emanez; badira ere, alor kulturala eta astialdia eta denbora libre lantzen dutenak. Bestalde, aniztasuna dago ere funtzionamenduari dagokionez, batzuk handiak dira, besteak txikiagoak, batzuek herri mailan lan egiten dute, beste batzuk, aldiz, eskualde edo lurralde mailan, etab.

Oro har, esan daiteke denek badutela xede komun bat, emakume etorkinak bizi dituzten hainbat premiei (ekonomikoak, sozialak, kulturalak, etab.) erantzunak ematea dena, baita emakumeak elkartu, esperientziak partekatu eta harreman sareak sendotu ditzaten topaleku bat sortzea ere. Bide horretan elkarte eta kolektibo hauek gizarte inklusiboago bat lortzeko egiten duten lana azpimarratzea garrantzitsua da. Izan ere, lan hori Ander-Egg-ek (2003) inklusioa azaltzean ematen duen definizioarekin guztiz bat egiten du, autorearen ustetan inklusioa, ikuspuntu sozial batetik ulertuta, pertsona ezberdinek gizartearen sektore handiak gizartetik at gera ez daitezen eta indarkeria, delinkuentzia eta bizi baldintza xumeen kiribil batean sar ez daitezen bermatzeko egiten duten eguneroko lanarekin lotuta dago. Inklusioa, hots, gizartearen esparru guztiak biritza

komunitarioan integratzea da; jatorria, ariketa, egoera sozio-ekonomikoa eta pentsakera kontuan izan gabe. Ildo beretik, gizarte inklusioa gizarte desparekotasunaren esparru eta maila ezberdinetan aritzen diren hiru alor nagusien determinazioen eta elkarrekintzen dinamika da. Hiru alor horiek honako hauek dira: estatua edo eskubideen ekoizpena, ekonomia edo balioaren ekoizpena eta gizartea edo gizarte harremanen edo pertsonarteko harremanen ekoizpena (Obradors i Pineda, García & Canal i Oliveras, 2010); aipatutako elkarte eta kolektiboek aipatutako hiru alor horien inguruan euren lana egituratzen dute.

3. METODOLOGIA

Ikerketa lan honetan metodologia kualitatiboa erabiltzea erabaki da, horren bitartez ulermen sakona bilatzen da, hori lortzeko errealitatearen deskribapen zehatza eta balio subjektiboa ezinbestekoak delarik (Mora, 2005).

3.1. HELBURUAK

Lan honen helburu orokorra etxeko lanen esparruan aritzen diren Latinoamerikatik etorritako emakumeen egoera nolakoa den eta euren inklusioa ahalbidetzen dituzten gakoak aztertzea da, euren ahotsetatik abiatuz betiere. Helburu hori teoria eta aurreko ikerketen azterketa egin ostean ondorioztatutako ikerkuntza-arazotik sortzen da, hots, Latinoamerikako herrialdeetatik etorritako eta etxeko lanen esparruan jarduten duten emakume etorkinen bazterkeria egoera. Helburu orokorra bete ahal izateko eta horrekin koherentzia mantenduz, helburu zehatz batzuk ere formulatu dira. Egindako diseinuaren emaitza hurrengo taulan (Taula 2) aurkezten da:

Ikerkuntza-arazoa	
Latinoamerikako herrialdeetatik etorritako eta etxeko lanen esparruan jarduten duten emakume etorkinen bazterkeria egoera.	
Helburu orokorra	Helburu zehatzak
Gizarte Hezkuntzaren eremutik etxeko lanen esparruan aritzen diren Latinoamerikatik etorritako emakume etorkinen egoera aztertu eta inklusioa nola ahalbidetu daitekeen jakin.	Emakume horien egoera nolakoa den aztertu.
	Kolektiboak bere inklusio maila nola hautematen duen analizatu eta deskribatu.
	Pertsona hauen inklusioa baldintzatzen duten gako psikosozial erabakigarriak identifikatu.
	Ikerketaren emaitzak genero, klase soziala eta etnia botere egiturekin kontrastatu eta balioztatu.
	Kolektibo honi zuzendutako etorkizuneko Gizarte Hezkuntzako proiektu edo esku-hartzeak gidatzeko gizarte- eta hezkuntza-proposamenak orientatzeko gakoak aurkeztu.

Taula 2: Ikerketaren helburuen diseinua.

3.2. LAGINA

Laginari dagokionez, Bilbon bizi diren 7 emakumeek parte hartu dute eta hautaketarako, Latinoamerikako herrialdeen artean feminizazio-indize altuenak adierazten dutenak hautatzea erabaki da, hau da, Mexiko, El Salvador, Guatemala, Bolivia, Kuba, Dominikar Errepublika, Venezuela, Peru, Kolonia, Nikaragua, Honduras, Paraguai edo Brasil bezalako herrialdeetatik etorritako emakumeak. Horrela, lagin honetan kolonbiar, paraguaiar 1, bolibiar 1, dominikar 1, nikaraguar 1 eta brasildar batek parte hartu dute. Hautaketa honetarako ere etxeko lanetan aritzen diren emakumeen profila lehenetsi nahi izan da, hori dela eta, aukeratutako laginean, emakumeen gehiengoa (n=5) barneko edo kanpoko etxeko langileak dira. Beste bien lan egoerari erreparatuz, bat jatetxeko langilea da eta bestea langabezian dago (Taula 3). Bestalde, adinari dagokionez, batazbestekoa 43 urte da (M=43).

Parte-hartzaileak	Jatorria	Lan egoera
1	Kolombia	Barneko etxeko langilea
2	Paraguai	Kanpoko etxeko langile
3	Bolivia	Kanpoko etxeko langilea
4	Dominikar Errepublika	Kanpoko etxeko langilea
5	Nikaragua	Jatetxe bateko garbitzailea
6	Brasil	Kanpoko etxeko langilea
7	Kolonia	Langabetua

Taula 3. Laginaren parte-hartzaileen jaioterria eta lan egoera.

3.3. TRESNAK

Bi izango dira ikerketa honetan erabiliko diren tresna kualitatiboak, alde batetik, Bizitza Historiak eta, bestetik, Relief Maps, hauek bateragarriak eta osagarriak direlarik. Izan ere, metodoen arteko triangulaketa honek ikerketak proposatzen dituen helburuak bete diren ebaluatzea ahalbidetuko du.

3.3.1. BIZITZA HISTORIAK

Bizitza historia ahozko kontakizunetan oinarritutako ikerketa soziohistorikoa da, pertsonaren ibilerak egitean datzana. Metodologia hau bi ardatz nagusietan oinarritzen da: elkarrizketatuaren subjektibotasuna eta elkarrizketatzailearen entzuteko gaitasuna (Guinot, 2009). Bizitza historia aurrera eramateko gidoi⁶ bat diseinatu da aztertu nahi den errealitateari egokitu dena.

⁶ Bizitza historioen gidioa kontsultatzeko "[Eranskina 3](#)" ikusi.

Ferrarotti (2007) autorearen definizioak Bizitza Historiek metodo kualitatibo gisa daukaten baliagarritasuna nabarmentzen du:

Bizitza Historiek ulermen sakona lortzeko balio dute, ez soilik kanpoko testuinguruak deskribatzeko. Halere, soziologo kuantitiboak baztertu dezakeen baldintza bat dago: ikertzaileak solaskidearen konfiantza irabazi behar du, ez da laukitxo zuzenean (“bai”, “ez”, “ez dakit”) gurutze bat jartzera mugatu behar, entzuten jakin behar du eta, entzuteko gaitasun horretan, bilaketa txosten soziografiko-inbentarial edo polizialek baino harago nabarmendu behar du. (Ferrarotti, 2007: 17)

Bestalde, Sarabiak (1985) horrela deskribatu zuen:

Bizitza Historien terminoa, ikuspegi ireki batetik ulertua, bi narrazio mota barne hartzen ditu: alde batetik, subjektuak berak bere bizitzari buruz egiten duen autobiografia; eta bestetik, narrazioaren subjektua biografiaren idazlea ez denean. (Sarabia, 1985: 171)

3.3.2. RELIEF MAPS

María Rodó de Záratek, Geografian doktorea dena, bere tesia burutzeko sortutako Interseksionalitatearen geografia feministak metodologiaren barnean *Relief Maps* (esperientziaren erliebe mapak) deituriko tresna garatu zuen.

Relief Maps perspektiba geografiko eta emozional batetik datu interseksionalak analizatu eta bisualizatzeko garatutako erreminta da (Rodó De Zárate, 2016). Izan ere, *Relief Maps*-ek bazterkeria eta desparekotasun egoerak ikusgarri izatea ahalbidetuko luketeen aldagairik ez daudenez orokorrean ez dira ikusten, alabaina, metodologia honek adierazle horiek ikusgarri izatea sustatzen du (Rodó de Zárate & Estivill i Castany, 2016). Tresna honek suposatzen dituen onura eta berrikuntza nagusiak aniztasuna eta interseksionalitate estrukturala⁷ adierazteko gaitasuna da. Izan ere, generoa, sexualitatea, etnia, klase soziala eta adina bezalako aldagai ezberdinak irudikatu ditzake. Mapa hauen eraketa prozesuarekin pertsona bakoitzak bere esperientzia interseksional propioari buruz hausnartzea bilatzen da, pertsona bakoitzak duen gaitasuna eta interesa kontuan harturik. Hitz gutxitan, mapa hau datu enpirikoak adierazten dituen irudi bisuala da, grafiko itxura izan arren, ez da neurgarria, sinbolikoa baizik. Mapa hauek hiru dimentsio aurkezten dituzte: soziala (botere egituren bitartez), geografikoa (lekuak irudikatuz) eta psikologikoa (bakoitzaren esperientziaren bidez).

Metodologia hau aurrera eramateko prozedura honako hau da: hasteko taula bat bete behar da pertsonaren eguneroko bizitzaren leku ezberdinetan zapalkuntza egituren

⁷ Egiturazko interseksionalitatea pertsonen eta gizataldeen bizitzan menderatze forma zehatzak sortzen dituen bazterkeria sistemen (arrazak, genero eta klase soziala, besteak beste) bateratzea da (Crenshaw, 1991; Cubillos, 2015).


arabera izandako esperientzia sailkatuz (Taula 4), horretarako pertsonari galdetzen zaio nolakoa izan den bere bizipena emakume bezala bere lantokian, adibidez. Hurrengo urratsean beraiek 4. taulan definitu dituzten lekuak 5. taulan sailkatuko dituzte toki horiek sortzen dieten ezinegona edo ongizatearen arabera (Rodó de Zárate, 2015): ezinegona sortzen duten tokiak (norbanakoari esperientzia deseroso nabaria sentiarazten dion gunea identitate bakar baten eraginez bada ere), leku gatazkatsuak edo intersekzio gatazkatsuen tokiak (identitate batekiko ezinegona sentiarazten duen ingurua baina aldi berean beste identitate bati lotuta ongizatea sortzen duena), neutralak (identitaterik nabarmentzen ez den tokia), ongizatea sortzen duten tokiak (beste gune batean zapalduta dagoen identitate bat askatu edo erosotasun nabaria sortzen duen tokia) (Taula 5) (Rodó de Zárate, 2013). Azkenik, esperientziaren erliebea sintetizatzen duen mapa irudikatzea eskatzen zaie (Irudia 1) (Rodó de Zárate, 2015).

LEKUAK	GENEROA	SEXUALITATEA	ETNIA	KLASEA	ADINA

Taula 4. Lekuaren araberako esperientzien taula.

EZINEGONA SORTZEN DUTEN TOKIAK	LEKU GATAZKATSUAK	LEKU NEUTRALAK	ONGIZATEA SORTZEN DUTEN TOKIAK

Taula 5. Lekuaren sailkapenari buruzko taula.



Irudia 1. Esperientziaren erliebe mapa baterako txantiloia.

3.4. DISEINUA ETA PROZEDURA

Lagina aukeratzeko orduan kontaktu pertsonalak eta "elur bola" teknika erabili ziren, euren esperientzia partekatzeko prest zeuden pertsonak hautatuz. Elkarrizketaren bi teknikak (Bizitza historiak eta Relief Maps) aurrera eramateko saioak, Bilbon kokatutako Abando auzo-etxean burutu ziren. Saioetan lehendabizi elkarrizketaren ahozko grabazioa egingo zela komunikatzen zen, parametroen adostasuna bermatuz. Ondoren, Bizitza Historioen transkripzioak eta *Relief Maps*-etan jasotako

informazioaren digitalizazioa burutu ziren. Bizitza Historien kategorizaioa burutzeko ondorengo dimentsioak erabili ziren: datu pertsonalak, harremana migrazioarekin, gurasoak eta familia, formakuntza eta laneratzea, parte-hartzea, harreman sareak, inklusioa, etorkizunera begirako erronkak eta ahalduntzea.

4. EMAITZEN ANALISIA

Atal honetan, ikerketaren emaitzak aurkeztuko dira, alde batetik, bizitza historietatik eskuratutako informazioa aztertu eta, ondoren, erliebe mapetatik lortutako informazioa eskainiko da.

4.1. EMAKUMEEN BIZITZA HISTORIAK

Hurrengo emaitzek emakumeekin izandako elkarriketetan nabarmendu diren eta aldeaz aurretik egindako planteamenduekin lotutako gaiak aurkezten dira, horretarako askotan euren hitz propioak jaso direlarik.

Migrazio katea eta migratzeko arrazoiak

Oro har, aztertutako laginean ikusi ahal izan dugu kasu gehienetan ez direla euren migrazio katearen lehengo ekintzaileak izan, gehienak euren familietako beste emakumeen bitartez etorri baitira. Baina badira batzuk, beste pertsonen bitartez etorri direnak, hala nola, Latinoamerikako herrialdean lan egiten zuen Gobernu Kanpoko Erakunde bateko kidea edo haurtzaroko lagunak. Migrazio katearen lehengo ekintzaileak izan diren kasu gehienetan ez dira geroztik beste senideak etorri, baina senideak ekarri dituztenen kasuan batez ere seme-alabak izan dira. Migratzearen arrazoiari dagokionez, ikerketa honetan parte hartutako emakumeen gehiengoak arrazoi ekonomikoa aipatzen dute:

“Ofrecerle un futuro mejor a mi familia y a mí misma.” (Kolonbia, 32, langabetua)

“Una familia pobre y entonces por eso también la inmigración. Tanta pobreza y yo con ganas de trabajar, una mujer independiente, que tengo el trabajo en mis venas, tengo que ir para algún sitio para buscar una solución.” (Brasil, 37, kanpoko etxeko langilea)

Kasu batzuetan familiarik ihes egiteko nagusiki emigratu zutela aitortu dute, emakume baten kasuan bere senarrarengandik tratatu txarrak jasotzen zituelako eta beste baten kasuan bere familiak moralitate katoliko zurruna zuelako eta ez zuelako onartzen bere senarrarengandik banatu izana, etxeko “ardi beltza” bezala hartzen zuten.

“No es que quiera presumir de nada, pero, yo no emigré por necesidad, inmigré prácticamente por emociones digo yo, porque me separé de mi marido. Nosotros venimos de una familia muy ambigua porque me han dicho que yo iba a ser la primera oveja negra de la familia que se separa, que los que se separan no se tienen que divorciar, una siendo soltera no tiene que tener hijos y todo eso, entonces yo me separé... Y yo me crié en un colegio religioso, uno de los colegios María Auxiliadora, mis tíos son sacerdotes y no podía haber separadas ni madres

solteras en la familia. Entonces yo me separé y, bueno, no podía rehacer mi vida y dije ¡yo me marchó!” (Paraguai, 48, kanpoko etxeko langilea)

“Por mi hermana fue que... me ayudó a venir porque ella veía que yo allí... me maltrataba el marido (...) Yo por esa razón me vine.” (Bolibia, 44, kanpoko etxeko langilea)

Beste kasu batean arrazoi ekonomikoa familiatik ihes egitearen beharrarekin batera agertzen zen:

“Yo me voy a ir a trabajar a algún lado, no sé a dónde, pero yo tengo que trabajar porque es que, a veces, había momentos que no tenía ni para darle de comer a los niños, nada ni... Y lo duro es que te acuestas sin cenar porque no tienes qué cenar, luego te levantas y el desayuno.... que la niña tiene que ir a clase y que no tienes para darle nada ¿sabes? (...) Para cuando me vine para acá la estaba pasando muy mal con el padre de mis hijos... Porque yo en Nicaragua era maltratada por el padre de mis hijos... Yo nada más lo hice por eso, si yo intentaba separarme, ya yo seguía con el bajo amenaza, entonces si yo me quedaba allá, él siempre me buscaba, para el pueblo que yo me fuera siempre me encontraba.” (Nikaragua, 36, jatetxe gabeko garbitzailea)

Emakumearen rola

Familiaren gaiari erreparatuz, mantenu ekonomikoa behar duten seme-alaben amen kasuan, amatasun transnazonala mantentzen dutela edo euren seme-alabak egungo bizitokira ekarri ahal izan aurretik mantendu zutela ikusi da. Dena den, seme-alabak izatea edo ez izatea familiaren arduradun nagusiaren papera hartzerako orduan faktore erabakigarria ez dela agerian geratu da, parte-hartzaile gehienek arduradun nagusiaren rola betetzen dute eta. Hau da, beraiek dira familiaren euskarri ekonomikoa bai bertan EAEn dauden senideena, baita euren jatorrizko lurraldean bizi diren senide horienak ere:

“Dependientes de mí muchas personas, especialmente mi padre, es una de las cosas por la cual sigo en España porque por el contrario... Porque yo no tengo hijos y si no tuviera ese compromiso con mi padre yo estaría allá en mi país vendiendo lechugas o lo que sea, pero estaría.” (Paraguai, 47, kanpoko etxeko langilea)

“Yo los crié a ellos (...) yo tenía que ser madre y padre a la vez (...) lo que sea por sacarlos adelante y ya después que llegué aquí y eso, y he tenido la posibilidad y eso, siempre les he mandado una mensualidad.” (Dominikar Errepublikar, 60, kanpoko etxeko langilea)

Hezkuntza formala eta laneratzea

Jatorrizko familien egoera sozioekonomikoak guztiz baldintzatu du haien hezkuntza ibilbidea, bik izan ezik, parte-hartzaile gehienek ez dituzte unibertsitate ikasketarik. Izan ere, horietako askok ez zuten lehen hezkuntzatik aurrera ikasteko aukerarik izan umeak zirenetik lan egin behar izan zutelako. Halere, ikasteko grina daukate orokorrean eta ikasten jarraitzeko aukerarik ez izateak frustratzen zien bere garaian eta gaur egun ere gaizki sentiarazten die:

“Cuando yo veía de que los otros niños de los vecinos se iban a estudiar y yo no me iba... Para mí eso era muy duro.” (Kolonbia, 32, langabetua)

Batzuek etorkizunean ikastea aipatu dute eta batek, zehazki, gaur egun Lanbideren bitartez Arreta Soziosanitario ikastaroa egiten ari da. Eta ikusten da formazio horrek eragin positiboa izan duela bere autoestimuan.

“Estoy estudiando por las tardes Sociosanitario, algo que me da Lanbide esa oportunidad que para mí es como sacarme la lotería. Es algo que yo quiero hacer, que me siento capaz de hacer y me siento como si fuera a realizar un sueño mío. Así que estoy haciendo un esfuerzo por sacarlo, ya me falta poco, hay mucho sacrificio que hacer, pero si lo saco seré la mujer más feliz del mundo.” (Bolibia, 44, kanpoko etxeko langilea)

Erdi- eta goi-mailako ikasketak daukatenek haien jatorriko herrialdeetan horiei lotutako lanbideetan lanean ibili ziren. Euren buruak haurtzaroan edo nerabezaroan lan egitera behartuta ikusi zutenak, aldiz, zaintza eta etxeko lanen esparruan ibili ziren gehien bat. Migratu ostean izan dituzten lan guztiak, bat izan ezik, garbiketa, zaintza eta etxeko lanen esparrura lotuta egon da. Bestalde, parte-hartzaileek salatu dute esparru horretan nagusitzen diren lan baldintzak: kontziliatzeko ezintasuna, gutxiespena, soldata baxuak, enplegu emaileek kontratua egiteko jartzen dituzten oztopoak, lanaldi luzeak, etab.

“El trabajo, estar interna, que nunca hay tiempo para nada, todas las horas que se trabaja, que son muchas, entonces no tienes como esa vida que deberías tener, común y corriente, una vida que puede llevar cualquiera; pero nosotras, las que estamos internas, nunca llevamos una... lo que se dice una vida normal, te hace falta liberarte de eso para poder llevar una vida concurrente (...) No tenemos derecho a paro, nos meten muchas horas, hay trabajos que son muy mal pagados.” (Kolonbia, 43, barneko etxeko langilea)

